

AZKOITIKO BATZAR IREKIA

(Bizenta Mogelen II. mendeurrena ospatuz)

1982-VI-13

Bizenta Antonia Mogel Elgezabalen II. mendeurrena ospatuz, bi egunez Insaus-ti jauregian bilera bereziak egin ondoren, Ekainaren 13an, eguerdiko 12etan, Uda-letxean izan da batzar irekia. Euskaltzaindik bildu dira: L. Villasante, P. Altuna, A. Irigoyen, F. Ondarra eta J. San Martin euskaltzain jaunak; J. A. Arana, P. Arregi, M. Atxaga, J. Basterretxea, I. Laspiur, J. L. Lizundia, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak.

Roman Sodupe alkate jaunaren eta Fr. L. Villasante Euskaltzainburuaren agu-rrezko hitzekin hasi da batzarra. Euskaltzainburuak, Nikolas Alzola urgazlearen hil berria eman du, bere bizitza ta lanei buruzkoan Jose Luis Lizundiari hitza emanaz. Honek, Nikolas Alzola Gerediaga (Anaia Balentin Berriotxoa) zenaren nortasuna zehatz mehatz agertu du, sei liburutan eta hainbeste kultur aldizkaritan eman dituen lan ugari bezain onak aipatuz.

Juan Ignazio Uria Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkartearen Gipuzkoako zuzendari jauna, Mogeldarrak eta Erret Elkartearikiko harremanaz mintzatu da.

Xabier Altzibar jauna, Getxoko Institutoan Euskal Katedra duenak Bizenta Antonia Mogelen bizitza eta lanei buruzko zenbait argibide eman ditu.

Juan San Martin jaunak, bi egunez Insaustiko jauregian euskaltzainek euskaraz-ko azentuari buruzko azterketa lanaren berri eman du, irakaskintzarako eta komuni-kabideetarako premiazkotzat joaz. Bilkuretan aurkeztu ziren txostenlari eta txoste-nen izenak aipatuz: Mitxelenak, "Zenbait euskalkitako azentuaren funtsezko oina-rria"; K. Rotaetxek, "Azentua eta entonazioa. Oinarri teorikoak eta euskarari aplika-zioak"; J. Basterretxeak, "Gernikako hizkeraren arabera, euskal entonazioari buruz ikerketak"; G. Lertxundiren txostenaren arabera, "Hitzak nola kantuan josi nota azkarrerri, gaurko nafar-lapurtar euskara azento gabea" J. A. Arana Martijak labur-pena agertuz. Eta, J. I. Goikoetxea "Gaztelu" k ez zuen izan bertara agertzetik.

M.^a Pilar Lasarte andereñoak "Emakumea kulturgintzan" mahainguruaren berri eman zuen. Bertan irakurri zituen txostenak: Arantza Urretavicayak, Emaku-mea idazkaritzan; Karmele Esnalek, Emakumea irakaslegoan; Miren Azkaratek, Emakumea euskalari; eta Izaskun Barriolak, Emakumea komunikabideetan. Bakoi-tzak, orain arte egin dena, egiten ari direna eta aurrerako bideak nola ikusten dituzten agertuz.

Larunbatez izan zen 1982.eko Bertsolari Txapelketaren lehen fasearen bukaera, puntuaziozko eliminatoriak Hernanin, Markinan, Tolosan, Lesakan, Hendaian eta

Aramaion jokatzuz eta azkenik, aurrera pasatu ziren hogetalarekin, Zornotzan eta Azkoitin. Bertatik, Jagon Sailburuak aditzera eman duenez, honako hauek pasatzen dira bigarren fasean A taldekoekin jokatzeko: Jose Mari Altuna, Sebastian Lizaso, Mendizabal, Iñaki Otaño, Peñagarikano eta Telleria.

Bukatzeko, Remi Larrañaga, Azkoitiko Kultur Elkartekoak, bere olerki batzuk irakurri ditu eta alkate jaunak bukatutzat eman du batzarra.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria-ordea

J. L. Lizundia